

UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ohikoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2019/03/01
Ordua: 14:30
Lekua: Izurtzako Udalbatza aretoa

Eva Maria Muñoz alkatearen lehendakaritzapean hasiera ematen zaio bilkurari zehaztutako orduan, Udaleko Idazkaria, Leire Ucin Soraluze, bertan izanik eta baita ondorengo zinegotziak ere:

Oihane Irastorza alzola
Iker Ballarin Zufiaurre
Oskar Zarrabeitia Asueta
Javier Retegui
Aroa Gonzalez Uriarte

Ez bertaratua:

Bakirtze Miota Sagastagoia

Alkateak bilerari hasiera ematen dio.

1.- Aurreko akta irakurri, eta hala badagokio, onartzea.

Inork ez du ezer komentatzeko, beraz, aurreko akta onartzen da.

2.- Dekretuen berri ematea.

Ez dago galderarik.

3.- “.net” domeinutik “.eus”domeinura pasatzeko ordenantzaren onarpena, hala badagokio.

Alkateak dio domeinuaren aldaketa egiteko, ordenantza onarttu behar dela.

Bozkatzen dute, eta aho batez onartzen dute ordenantza.

4.- Izurtzako udaleko dirulaguntzen behin-behineko onarpena, hala badagokio.

Alkateak hartzen du hitza. Esaten du proposatzen dela, orain indarrean dagoen hianbat dirulaguntza arautzen dituen ordenantzetan urtea kentzea, beraz, ez da



beharrrik egongo urtero onartu behar izatea ordenantza berbera. Zerbait aldatzea nahi bada, aldaketa izapidetu eta listo.

Bozkatzen dute eta aho batez onartzen da Izurtzako Udaleko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza.

5.- Berrestea Maria Jesus Bañuelos Gorrotxategik Juan Mari Murgoitio Areitio ordezkatzeari, erabilera anitzeko lokalaren obra kontratazioari dagokion Kontratazio mahaian, hala badagokio.

Alkateak esaten du Juan mari Murgoitio, Kontratazio mahaiko kidea, bajaran dagoela; erabilera anitzeko obraren lizitazioa martxan dagoenez, eta martxoaren 6an artxiboaren irekiera zegoenez, Maria Jesus Bañuelos izendatu zuen alkateak Dekretu bidez, Juan Mari Murgoitioaren ordezkari gisa iharduteko.

Bozkatzen dute eta denak ados agertzen dira aho batez.

6.- Erabilera anitzeko lokalaren obraren kontratua Indenort, P.V.ri esleitzeko proposamena onartzea, hala badagokio.

Idazkariak hartzen du hitza. Esaten du hiru empresa aurkeztu direla Erabilera anitzeko lokalaren lizitaziora; **Aplibur, S.L.** kanpoan utzi dutela, erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu ez duelako. **Zamakoia S.A.**aren proposamen ekonomikoa 196.294,12 Eurokoa izan da, eta berme epearen luzapena 4 urtekoa izatea eskeini dute. Indenort, P.V.ren eskaintza ekonomikoa 194.999,19 Eurokoa izan da eta berme epearen luzapena 4 urtekoa.

Beraz, irabazlea **Indenort, P.V** izango litzateke. Beraz, proposatzen da Indenort, P.Vri erabilera antzeko obraren kontratua esleitzea eta 7 egun balioduneko epean pleguetan ezarritako dokumentazioa aurkezteko eskatzea.

Bozkatzen dute, eta aho batez onartzen da kontratua Indenort, P.Vri esleitzea.

7. "Nagusia" pensiodunen elkarteak proposatutako mozioa onartzea, hala badagokio.

EAJ PNV mozio horren kontra (2 botu) agertzen da, ondorengo argudiatuz:

NAGUSIAK, Bizkaiko erretiratu eta pensiodunen elkarteak pentsioen trataeraz planteatutako duten mozioaren aurrean, **aurka** bozkatuko dugu:

Ematen dituzten argudioetan hutsegite bat dago Gizarte Segurantzaren ereduari dagokionez. Pentsioen eredu ez da nork berea kapitalizatzeko eredu bat, baizik eta banatzeko eredu bat; hau da, langileek ordaintzen dituzten kotizazioak ez dira

etorkizunean jasoko duten pentsiorako gordetzeko,baizik eta etorkizuneko pentsioak finantzatzeko. Etorkizuneko pentsio horiek ordainduko dituzte etorkizunean kotizazioak ordaindu beharko dituztenek.

“Sarrerak/ aurrezkiak”, Pentsio Planak eta EPSV delakoak birritan ordaintzen direla esaten dutenean, hori ere ez da egia, enpresen kotizazioak eta langileek gizarte segurantzari egiten dioten ekarpenak PFEZaren oinarriaren gastu kengarriak direlako, ekarpena egiten den momentuan. Beraz, ez dute zerga ordaintzen ekarpena egiten denean, pentsioa jasotzen denean baizik. Beste alde batetik, berdin gertatzen da pentsio planekin eta EPSV delakoekin, ekarpenen oinarria kengarria delako. Beraz, ez dute PFEZean tributatzen ekarpena egiten duten momentuan, baina bai kobratzen direnean.

SICAV delakoei dagokienez, ez da egia %2koa zergatan ordaintzen dutenik, tipo orokorreko zerga aplikatzen zaielako. Estatuko Ogasunean ordaintzen dena %1a da. Behar bada, mozio hori Ebro ibaitik behera aurkeztu beharko litzateke, eta ez Ebrotik gora.

Beste gai bat da bankuetako pentsio funts pribatuen tributazioari dagokiona, finantza produktu hau erakargarri egiteko ezarrita dagoena. Gai horrek hausnarketa handiagoa eskatzen du funts pribatuak askotarikoak direlako. Baina argi eta garbi utzi behar da pentsio publikoen eta pentsio pribatuen arteko desberdintasuna.

Hori guztia aintzat hartuta, mozioa ez onartzea proposatzen da.

EH BILDU 4 boto aldeko, argudiatuz babesa ematea erabaki dutela.

Beraz, “Nagusiak” pentsiodun elkarteak proposatutako mozioa onartzen da.

8.- “Pediatria 24 ordu” plataformak proposatutako mozioa onartzea, hala badagokio.

EAJ PNV ados agertzen da.

BILDU ados agertzen da, baina proposatzen dute Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari durangaldeko pediatria gida bat egiteko.

Beraz, “Pediatria 24 ordu” mozioa aho batez onartzen da.

9.- Galde eskeak.

Ez dago galderarik.



